

Goi

Goierritarra aldizkaria

377. zenbakia 2010eko martxoak 12



**NERE
GARMENDIA
IKERLARIA**

SAN GREGORIOKO LASTERKETAK 50 URTE



Non dago Xerbera?

ATE IREKIAK

etorri aurretik
izena eman!



902 110 436 - www.mondragon.edu/prest

PREST



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

Goi Eskola Politeknikoa

ORDIZIA

APIRILAK 17 larunbata - 11:00

Enpresagintza Fakultatea

IRUN

MARTXOAK 25 osteguna - 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORIATZA

APIRILAK 22 osteguna - 18:00

ARETO NAGUSIAN



GOIERRIKO **hitza** 

Egin harpidedun

GOIERRITARRA ☐
urtean 27 euro

HITZA ☐
urtean 67 euro

GOIERRITARRA+HITZA ☐
urtean 72 euro

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:

• N A :

• Lanbidea:

• Jaioteguna:

• Helbidea:

• Herria:

• P.K:

• Tel.:

• Posta elektronikoa:

• Kontu zenbakia:

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

902-82 02 01 (Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

harpidetza@hitza.info

Urbialde plaza, 7 behea • Beasain



Etor Mendia

Orain ere ordenagailuaren aurrean. Pentsa zitekeek kirola edo jarduera fisikoa eta ordenagailua kontrajarriak ditukela, azken hau sedentarismoarekin gehiago lotzen bait dek. Eta begira nola dituken gauzak nere jardun profesional gehiena ordenagailu bidez egin beharra diatela. Gure lana errazten omen die tramankulu hauek, hala izango dek, bainan

bai lana eman ere!

Gogoan diat aurreko mendeko 90. hamarkadan (nola pasatzen deken denbora!) internet jarri genduanekoa, ia hura zer izan zeikean arrastorik jakin gabe. Orain berriz ia halabeharrekoka bilakatu zaiguk bere erabilera: informazio iturri mugagabea bere onura eta arrisku guztiekin. Ze zin diagu ukatu edonork edozer idatzi zeikekela eta denon eskura jarri, egia edo gezurra izan, oinarri zientifikoa dikan

Gurea izango dek "aditu" gehien dizkiken

lanbidea... Zeinek ez dik kirolaz ulertzen?

Ian bat edo iritzi soil bat izan. Eta informazio hori behar bezela erabiltzeko edo baliatzeko gutxieneko prestakuntza edo formazio bat beharrezkoa dek, eta prestakuntza horren ezean arriskuaren eremuan murgildu gaitezke. Zenbat jende joaten dek gaur egun medikuarena bere minaren diagnostikoa emanez?

Lanbide bitxia halere kirola eta jarduera fisikoren inguruan dihardiagunena. Gurea izango dek "aditu" gehien dizkiken lanbidea... Zeinek ez dik kirolaz ulertzen? Zeinek ez dizkik kirol adituon aholku edo erabakiak kritikatzek? 5 urtetako goi mailako ikasketak burutu, ondorengo seminario, monografiko eta masterrak... gero 10'-ko artikulo bat irakurri dikan batek hire lana zailtzen jartzeko! Gainera lan mundua ere etzeok batere erregulatua, izugarritzko intrusismoa zeok eta horren aurkako neurriak ez dizkie hartzen. Bazirudik teoriarik hainbesteko garrantzia ematen zaioken jarduera fisikoa eta osasuna edozeinen esku egoteak ez dikela inor arduratzen...

Neroni gutxi jartzen neok orde-naore aurrean, baño jartzen neokenen ikeari entretenitzen neok. Eonai! Zeren oain akordatzan neokela, ikasle garaian deskubritu nian nik internet, Gasteizen. Bazetorreala abisatu gintuztean bai, baño sinistuidak, hainbesteko tramankulu bilakatuko zianik ez genduan iñork espero. Arraust! Akordatzek al haiz "google" noiz azaldu zian?



Igor Bueno

Arrazoi dek, informazioa zeok interneten, etengabe, hazi eta hazi, eta ez beti ona. Baño ze esango diat-ba, ni earki moldatzen neok. Kontuk atea, lagunak alprojana eta biok aurtengo opor-bidaia prestatzen ari gaituk eta internet bidez informazio guztia lortuko diagu; Malaysian non buzeatu, Indonesian zein playa bisitatu, Vietnamen Jalon badien barneratu, Laosen motorra alokatu, Camboian Angkor ezagutu, Hanoi, Kual Lumpur eta beste hainbat hiriburutan galdu...

Informazioa zeok interneten, etengabe,

hazi eta hazi, eta ez beti ona.

Hi, negozioa ere bazeok interneten e! Denetik ugari eta geroz eta gehio gañea. Ta ze esango diat-ba, ni earki moldatzen neok. Beittuzak, Hungariatik zapatila pare polit askoa noiz iritsiko zain neok, eta hoi ez dek internet bidez egiten diaten lehen erosketa, ez eta azkena.

Horra, internet, ona eta zaborra! Arrazoi dek, interneteko arriskuak eta gezurak aipatzen ditukenean, ezagutzen dizkiat bai "navarraconfidencial" bezalako web-orriak, hori bai zaborra, kiratsa botatzerainokoa, eta lastima, ezin birziklatu! Zerikusirik ez "parkingday" bezalako web-orriekin! Azken hau bisitazak, harrituko hau.

Herriko kaletik ibiltzea bezela dek internet, igual iguala. Denda zein taberna, enpresa zein erakunde, artista zein artisau, denek ditek web-orria, baita goierriko kirol elkarte eta kirol probek ere, informazioa danon eskura. Eta horrela den bitartean, nik internet luzaroan izango diat lagun, eta zer esanik ez nahi diaten huraxe topatzen diaten bitarten, entretenituko ez neok-ba!

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama, Itsasondo eta Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia



HAMABOSTEKARIA
Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L.
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 757
Harpidetza: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albusu

Inprimaketa: Gertu
ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Denetik (XXXIII)

Maizpide euskaltegia

Noski baietz!

Ez da egunik “noski baietz” trakets hori entzun gabe geratzen garenik. Euskarak dituen forma txukun askoak kontuan hartuta, ea behingoz desagertarazten dugun!

- ✗ - Joango al haiz “Arrastoa” antzezlanak ikustera, Pako?
- Noski baietz! (*desegokia*)
- ✓ - Joango al haiz “Arrastoa” antzezlanak ikustera, Pako?
- Bai, horixe! (*egokia*)
- ✓ - Joango al haiz “Arrastoa” antzezlanak ikustera, Pako?
- Bai, noski! (*egokia*)
- ✓ - Joango al haiz “Arrastoa” antzezlanak ikustera, Pako?
- Joango ez nauk, bada! (*egokia*)
- ✓ - Joango al haiz “Arrastoa” antzezlanak ikustera, Pako?
- Horixe joango naizela! (*egokia*)
- ✓ - Joango al haiz “Arrastoa” antzezlanak ikustera, Pako?
- Jakina, Xatur! Ni joan ezean, zuek aspertu! (*egokia*)

Ez nijo egitera

Maiz jotzen dugu “joan” aditzera, baina txukun erabiltzen ote dugu beti? Bada, mugimendurik izan ezean, ez da egokia erabiltzea:

- ✗ Eskema txukuna egin gabe, ni ez noa idazlana egitera! (*desegokia*)
- ✓ Eskema txukuna egin gabe, nik ez dut idazlanik egingo! (*egokia*)
- ✗ 18 urte bete arte ez noa autorik erostera! (*desegokia*)
- ✓ 18 urte bete arte ez dut autorik erosiko! (*egokia*)

Otsailaren hamalauan San Balentin eguna ospatu gendun

Badirudi izenburuko egun hori dela gaur egungo maitemindu askok, euren maitasuna adierazteko asmotan, elkarri opariak egiteko hartzen duten eguna (badakizue, hemen ere “globalizazioa”). Baina ez da gai hori gaur aldizkariaren txoko honetan landu nahi duguna. Kontua da “hamalauan” behar du; eta, noski, ondorengo hauekin ere berdin jokatu behar dugu: lauan, hogeita lauan...

- ✗ Abenduaren hogeita lauan sekulako afaria egiten dugu amaginarrebarren etxean. (*desegokia*)
- ✓ Abenduaren hogeita lauan sekulako afaria egiten dugu amaginarrebarren etxean. (*egokia*)



KAMELEOIAK ZER EGINGO OTE DIO OPARI SUGANDILARI?

ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Uztailaren laua egun handia dute AEBetan.
2. Euskara salbu ikusi arte ez noa bizarra moztera!
3. Bizarra neronek egingo dudana? Horixe egingo dudala!

OHARRA: bigarrengean, “ez dut egingo bizarra” behar du; beste guztiak txukunak dira!

IBAI ONDO
ARROZTEGIA

- Aroztegia
- Altzariak neurrira
- PVC, aluminio eta egurrezko lehioak

Katea, 5 -Antzizar auzoa - BEASAIN
Tel.: 943 16 40 40 / 639 631 640 Faxa: 943 16 47 47
www.mueblesibaiondo.com

KAMEBI
Sagardotegia

Sagardoa
txotxetik

Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO

Herri kontsulta Zubietako errausgailuaz



Usurbilgo eredu jarrai dezan eskatu dio Greenpeace erakunde ekologistak Gipuzkoako Foru Aldundiari eta hondakinen kudeaketa ereduaz herritarrei galdetzea.

Orain hamabost eguneko bozketaren bidez, Usurbilen beraien etxeko hondakinen kudeaketaz izandako herri kontsultan herritarrak heldutasun eredu izan dira jasangarritasunaren alde argi ekin ez eta Atez Ateko hondakinen bilketa eredu berretsiz.

Greenpeacek ekimen hau eta bere emaitzak gorapatu ditu, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatu, eredu jori jarrai dezan eta gipuzkoar guztiei galde diezaien zein hondakin eredu nahi duten eta ia Zubietako errausgailua eraikitzearen aldekoak diren.

Orain urtebete, Usurbilek Atez Ateko hondakin bilketa sistemaren alde egin zuen, eredu hori martxan jartzen zuen Euskadi mailako lehenengo udalerrria bihurtuz. Horren bitartez, hondakinen % 82a baina gehiago erreku-peratu eta berziklatu du, emaitza hori hondakinen kudeaketan arrakasta handia izanik. Sistema horren eraginkortasunak beste udalerrietara zabaltzea ekarri du, hain zuzen, Hernanira eta Oiartzunera.

Greenpeaceko Kutsadura Kanpaina arduraduna den Julio Bareak adierazi du "Usurbilgo bizilagunek beraien erabakiarekin hondakinen kudeaketa jasangarriaren alde eta errausketaren aurka duten apustu garbia erakutsi dute berriro ere.

Horregatik Greenpeacek Foru Aldundiari eskatzen dio gogoan hartu eta eredu berdina jarrai dezala, Zubietako errausgailuaren proiektuaz herri galdeketa eginez."

Errausgailuak pertsonen osasuna eta ingurumenari kalte egiten dieten kutsadura iturriak dira. Substantzia toxiko eta arriskutsuak isurtzen dituzte, eta horrez gain, klima aldaketa eragiten duten berotegi-efektuko gasen lantegiak dira. Erraustutako hondakinen ia %30aren pisua errauts eta zepa bihurtzen da, segurtasuneko zabortegetan lurperatu behar dena. Horrek berekin dakar, etxeko zaborren kudeaketa, hondakin arriskutsuen trataera bihurtzea.

Greenpeace

JAKIN BEHARREKOAK

Oiangu Publikoa eta Bizirik Plataformak blog berria du: <http://oiangu-bizirikplataforma.blogspot.com/>. Bertan informazio ugari aurki baitaiteke Oianguko proiektuaren aurkako borrokaz eta Oiangu parkeaz. Jadanik 1000 bisita izan ditu.

"Kantauri: Ikuspegiak eta begiradak" Erakusketak, Euskal Naturaren eskutik, Oiangu Parkea Bizirik eta Landerlan elkar-teen antolatuta eta Ordiziako Udalak lagunduta. Aurkezpena: martxoaren 26an, 19:00etan, D'Elikatuz aretoan, Ordizian.

Patata transgeniko arriskutsu baten landaketa baimendu du Europar Batzordeko lehendakariak, Barrosok. Lurraren Lagunak, CECU kontsumitzaile elkarteak, COAG nekazal elkarteak, Greenpeacek eta Ekologistak Martxanek salatu dute, patata horrek antibiotikoei erresistentzia handitu diezaiekeela.

Sestaoko baldosa ekologikoak funtzionatzen dutela ziurtatu du Twente (Holanda) unibertsitateak. Pavimentos de Tudela enpresak ipinitako baldosak aire kutsadura gutxitzen dute. Fotokatalizatzaileak zementuarekin eta beste materialekin konbinaturik, ibilgailuak eta lantegiek isurtzen duten oxido nitrosoaren %40 murrizten dute. Baldosak euri ura eta argia (naturala edo artifizia) behar dute bere betebaharra egiteko.

 **landerlan**
ingurumen taldea

Landerlan taldeak egindako orrialdea. Taldean parte hartu, gairen bat aportatu edo albisterr bat bidali nahi baduzu:
☎ 943161244 landerlan@yahoo.es

150 urte iraungo duten protesiak egiteko materiala garatu du Nere Garmendia beasaindarrak

“Medikuntzan, material berri bat erakutsi behar duzu, ez dela ona, oso-oso ona dela baizik”

Gaur egun, gorputzean jartzen diren protesiak, 10-15 urteko iraupena daukate. Denbora hori pasatuta, berriz ere eba-kuntza egin eta protesia aldatu behar da. Hirugarren aldiz gauza bera egiteko dena den, ez da hain erraza, hezurra minduta gelditzen baita. Arazo horretatik abiatuta, protesientzako material iraunkorragoa garatzeko ikerketa egin du Nere Garmendia beasaindarrak. Saiatu eta baita lortu ere. 150 urteko iraungo dituen protesientzako materiala aurkitu baitu Tecnaliaren Osasun Unitatean egindako lanaren ondorioz. Doktoradutza tesia aurkeztu berria du. 29 urte ditu beasaindarrak.

Herritar asko ikutzen duen ikerketa egin duzu. Protesia jarri behar dutenak, gustura egoteko moduan dira.

Bai gizartean, oihartzun handia izan du bai.

Noiztik zabiltza ikerketa munduan?

Ingenieritza Industrial ikasketak egin eta Inasmet-Tecnalian hasi nintzen proiektua egiten. Tesia egitea proposatu zidaten. Nik lana egiten dudana saila, Tecnaliaren Osasun saila da. Osasun arloko materialekin egiten dugu lana.

Ikusi zen, protesien arloan bazegoela arazo bat: protesiak metalikoak edo zeramikoak izan daitezke. Metalikoek alergiak sor ditzakete, ioiak askatzen dituzte eta hezurrek ez duela balio esatea gertatu liteke eta gorputzak protesi hori ukatu egiten du. Ikusten genuen, zeramikak beste materialekin konparatuta, abantaila gehiago dituela. Baina aldi berean, desabantailak ere baditu zeramikak: erresistentzia ona du, baina 2000. urtean

arazo batzuk egon ziren: zeramika gorputzean sartzen zenean, gorputzeko fluidoekin eta tenperaturarekin desestabilizatu egiten zen eta akatsa ematen zuen. Beraz, material hau hartu zen matritz bezala eta material honi gehitzen zitzaion beste material bat, gorputzean denbora gehiago irauteko. Aurreko materiala, 10-15 urtera arazoak ematen hasten zen. Eta honek 150 urtean iraungo duela kalkulatu dugu.

Zein material dira?

Zirkonia nanometrikoa eta karbonoko nanotuboak.

Nola neurtu edo kalkulatu dituzu urteak?

Simulazio bat izaten da. Makina batean sartzen da. Presioa eta tenperatura dauzka eta makina horretako ordubetea, gorputzean hiru urte egongo balitz bezala izango litzateke. Materia makinan sartzen da eta analizatzen da desestabilizatu den ala ez. Ikusi da, orain arte erabili izan den zeramika horrek arazoa zeukala 10-15 urtetara. Material berri honekin entsaioak egin dira, eta simulazioan nahiz eta 150 urte pasatu, oraindik ondo dago eta ez da ikusten zahartzen.

Zuk zenbat denbora behar izan duzu material berri hau aurkitzeko?

Lau urtean aritu naiz. Orain arte, materiala garatu da eta hemen-dik aurrera, material hori protesiekin jarri beharko litzateke, ensaio mekaniko gehiago egin, in vivo, zelulekin egiten dira, laborategi batean eta in vitro, materiala gizaki batean inplantatuz egiten dira, entsaioak egin, ondo dabilela ikusteko.


Iraultza bat izango al da?

Iraultza izango litzateke material honekin. Metalak ematen dituen arazoak, alergia arazoak izan litezke, ioiak askatzen dituela eta gorputzak ukatu egiten dituela, edo zeramikak ez dituela aguantatzen. Gaur egun, jende gazteak ere behar izaten ditu protesiak, istripuren bat izan dutelako, edo gaixotasun bat duelako. Protesiak jartzen zaizkie, 10-15 urte irauten duenak, eta 30-40 urteko norbaiti jarri gero, beste behin ere jarri dakioke beste protesi bat baina hirugarrenean, hezurra minduta gelditzen da hirugarren aldaketa egiteko gaizki, zaila izaten da. 150 urte ez dira beharrezkoak, baina ziurtatu nahi dena da, gutxienez, 30 urteko iraupena izatea eta bi aldaketekin nahikoa izango litzateke.

Materiala aurkitu duzu. Hemendik aurrera,

merkaturatzeko zein bide jarraitu behar izaten da?

Hori oso bide zaila da. Alde batetik, bukaerako pieza egin behar da, entsaiatu. Osasunerako gauzak direnean eta gorputzera sartu behar direnean, CE (Europar Komisioa) markatua lortu behar da eta horretarako entsaio asko egin behar dira, entsaio zorrotzak. Medikuntzako material berri bat gorputzean sartzea, urte askotako lana da. Ez da materiala garatzea baka-



Osasunerako gauzak direnean eta gorputzera sartu behar direnean, CE (Europear Komisioa) markatua lortu behar da eta horretarako entsaio asko egin behar dira, entsaio zorrotzak.

rik. Materiala lortu da baina materiala lortu denean entsaio guztiak egin behar dira, zelulekin, ikusi behar da ez dela toxikoa eta konpatiblea dela. Gero pertsonekin egin behar dira probak, eta ikusi ondo funtzionatzen duela. Urte asko dira. Medikuntza arloan zerbait berria sartzeko urte asko pasatu behar dira.

Protesiren bat jarri behar duenari ilusio bat sortuko zitzaion, baina pixkatxo bat itxoin beharko dela ezta?

Itxoin beharra dago. Material berriak sartzea oso zaila da, baina materiala aurkitu da eta ikusi da gauzak hobetu daitezkeela.

Denboraz gain, diru ere beharko da ezta?

Diru asko behar da. Enpresak interesatuta egotea behar da.

Gizartean zure aurkikuntzak oihartzuna izan du eta medikuntza arloan?

Eduki du, baina orain garatu duguna materiala izan da eta orain material hori preofesionalei erakutsi behar diegu, balio duela demostratu behar diegu. Medikuntzako materialen arloko kongresuetan eta aldizkarietan aurkeztu dugu eta material hau aurkeztu dugun lekuetan ondo publikatu dizkigute. Aldizkari espezializatueta eta kongresuetan oso ondo hartu da materiala. Baina oraindik medikuei ez zaie materiala aurkeztu. Hauei, protesia, bukaerako formarekin aurkeztu behar zaie, In vitro

entsaioak eginda, beraiek ikusteko materialak balio duela. Eta hori denbora eta diru asko da.

Medikuntzan karbonozko monotuboak materiala sartu da orain. Ematen zuen oso garrantzitsua izan behar zela baina homologatzeko arazoak daude. Erakutsi beharra daukazu, ez dela ona, oso-oso ona dela baizik.

Mundu mailan izan al du oihartzuna?

Bai, aldizkari espezializatueta, azaldu da bai. Aldizkari ingelesak, amerikarrak, italiarrak ere bai...

Tesia egin ondoren, ikerketa lanean jarraitzeko asmoa al daukazu?

Tecnaliaren osasun unitatean lanean jarraitzen dut material horren inguruan eta beste gai batzuetan ere bai, zeramika munduari lotuta. Hezurak erregeneratzeko, protesi ezberdinak... Material berri hau batez ere, aldakako eta belauneko protesientzako da.

Medikuntza arloan ere aditu bilakatzen arituko zara.

Medikuntzako materialetan! Ikasi beharra daukazu eta gauza bakoitza zer den, zer behar den... ikasten ari naiz bai. Osasun alorrek zein behar dauzkan... Politia da ikustea, nik egiten dudana lanak, eragina izan dezakeela gizakion bizitzan.



Banku etikoa

Mundu hobeago eta justuago baten bila diruaren errentagarritasun soziala helburu

Askotan entzun izan dugu beste gizarte eredu bat behar dela. Are gehiago krisialdiaren ondoren. Urrats hori egiten ari dena, Banku Etikoa da. Hauxe da Banku Etikoaren filosofia: diruaren errentagarritasuna albo batera utziz, gizarte errentagarritasuna bilatu, hau da, diruaren erabilpen eraginkorra gizarte eta pertsonen alde. Ordizian, Goierri kaleako 12. zenbakian, 10 laguneko talde bat dago Banku Etikoaren inguruko informazioa emateko.

Ordiziako taldea: (denak ez daude argazkian, baina ondokoa da Ordiziako taldearen zerrenda). Jokin Otegi, Pedro Perez, Jose Manuel Otegi, Gregorio Aranburu, Ion Korta, Miguel Calvillo, Mila Sukia, Ainara Ormaetxea, Esther Aranburu, Amparo Diaz de Cerio eta Eva Arrieta. Batez ere, aboz aboko lana egiten ari dira ordiziarak. "Jendeari proiektu ona iruditzen zaio eta jendea ari da dirua jartzen poliki-poliki. Ondo onartzen da planteamendua", diote.

"Baliabideak ez dituztenei errekurtsioak eskaini nahi zaizkie. Babestu egin nahi ditugu".
Miguel Calvillo

Bi helburu batera lortu nahi dituen bankua

1 Gizartean eragin onuragarria daukaten ekintza ekonomikoak finantzatzea; hau da, ekologia, kultura, gizarte-egitasmoei eta horiek garatzen dituzten enpresei laguntza emanez. Honetaz gain, txiroei, gizartetik kanporatuta dauden pertsonen, edota orokorrean bankuen finantzazio munduan sartzen ez direnei baliabideak eskura jartzea.

2 Oinarrizko irizpide etiko batzuk errespetatu, irabazi ekonomikoek eskertu hazkuntza, inbertitzea eta berrinbertitze soziala, eraberritzea eta ustegabekoen estaldura lortzea.

"Aipatutako bi helburuak utziezinak dira: lehenengoa emango ez balitz banku arruntaren aurrean egongo ginateke eta bigarrenari behar besteko jaramon egingo ez bagenio berehala utziko lioke banku izateari".

Italian 1995. urtean sortu zen Banca Popolare Etica, Mailegu Kooperatiba. Gaur egun Europa mailako erreferentzia da. Banku Etiko guztiak kooperatibak dira. Estatu Espainiarrean bide horri heldu nahian, Fiare Fundazioa (inbertsio eta aurrezki arduratsuen fundazioa) sortu zen. Euskal Herrian, Bilbon daukate egoitza eta Ordizian ere badago boluntario talde bat, Banku Etikoarekin bat egin eta informazioa zabaltzen lanean ari dena. Hamarreko taldea biltzen da astero Goierriko kaleko 12. zenbakian eta bertara egin dugu bisita, Banku Etikoaren nondik norakoak gertutik ezagutzeko asmoz.

Italiako agentzia bezala funtzionatzen du Fiarek. Horren arrazoiak azaldu digu Miguel Calvillok. "Momentu honetan, Italiako Banca Popolare Eticaren bidez ari gara lanean. Hemen aurrezki erakunde bat izateko,

Espainiako Bankuak dio, 5 milioi euroko bermea eduki behar dela eta oraindik ez daukagu kopuru hori. Beraz, bitartean, aurreztailearen dirua babesten duena, Italiako Banca Popolare Etica da. Diru guztian han gordetzen da".

Ildo horretatik, 2011rako 5 milioi euro lortu nahi dira, etorkizuneko kooperatiba osatzeko.

Dirua, tresna

Banku Etikoak ez du ahalik eta etekin ekonomikorik handiena lortzea helburu. Diruaren izaera soziala berreskuratu nahi du, jarduerak ekonomikoak mundu justuago, humanoago eta jasangarriago baten eskura jarri nahi du. Pertsonak edo gizartea dira Fiareren helburuak eta dirua da horretarako tresna, eta ez alderantziz. Gizarte helburuak dituzten egitasmoetan bakarrik inbertitzen du Banku Etikoak. Elkartasuna da irizpide nagusia.

"Ideia nagusia da, dirua erakarri, erabilpen tradizionala eman beharrean, esplotazio eta errentagarritasun ekonomikoaren orde, errentagarritasun soziala bilatzea. Izaera soziala du. Baliabideak ez dituztenei errekurtsioak eskaini nahi zaizkie. Babestu egin nahi ditugu. Normalean, bankuek, beraien proiektuetarako mailegurik ematen ez dien kolektibo hori babestu nahi dugu. Adibidez: kartzelatik atera den bat, berregizartetzeko prestatuta dago, baina proiektu bat duenean eta bankura diru bila doanean, antezedenteak baditu, zaila izango du mailegua lortzea. Gure lana, babestea da", zehaztu du Calvillok.

"Oinarrizko premiak estaltzea bai gure inguruko eta bai Hegoko pertsonentzat", gaineratu du Juan Garibi bankuko zuzendariak. Baztertze egoera edo arriskuan dauden pertsonekin lan egiten duten entitateentzat, Hegoarekiko garapen eta lankidetzarako




Errehabilitazioa
Masaje terapeutikoa
Kirol masajeak
Lunbalgiak eta ziatalgia
Drenaje linfatikoa
Kinesiologia

Naiara Gómez Larrea
Kol.zkia.: 1466

Ordutegia:
astelehentik
ostiralera
9:00 - 13:00
15:00 - 20:00

Andraitz kalea, 2 ezk. ZEGAMA Tel.: 943 80 15 32



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

governuz kanpoko erakunde-entzat, elkartasunezko ekonomomiako enpresentzat, eta oro har, eragin sozial positiboa duten jarduerak gauzatzeko edo sustatzen dituzten irabazi iasmorik gabeko entitate guztientzat lana egiten du Banku Etikoak. Enpresa proiektuak abiarazteko kredituak, edozein pertsona fisiko edo juridikok aurkeztuta ere, kreditua onartzeko, bai entitateak eta bai proiektuak ebaluazio etikoak eta sozialak gainditu behar du.

Lau arlotako edo eremutako proiektuak finantzatzeko dituzte Ekonomia solidarioaren inguruko proiektuak, Nazioarteko lankidetzaren eta Bidezko Merkataritzaren inguruko proiektuak, Gizarte balioak, nekazaritza ekologikoa gaiak.

Bildu eta banatu

Horretarako guztietarako, dirua jarriko duena bilatu behar da lehenengo. "Batetik, bazkideak egiten ari gara. Banku sortzeko dirua jartzen ari da. Nahikoa depositua daukagunean, gure banka edukiko dugu eta hemen gestionatuko da". Bazkide denak, batzarretan iritzia eta botoa emateko eskubidea izaten du. "Berdin da zenbat diru jarri, bakoitzak boto bat izango du", gaineratu du Garibik.

Bildutako dirua maileguak emateko erabiltzen da. "Proiektuak bideragarriak izatea da baldintza. Proiektuak ez dira musutruk emandako diruarekin finantzatzeko. Zehaztutako epean itzuli beharko du dirua mailegua



jaso duenak, dirua utzi duenak, jasotzeko bermea izan dezan. Etika batzorde bat dago maileguak eman ala ez erabakitzen duena. Demonstratu egin behar da ordaindu daitekeela mailegua". Maileguak eman zaizkien erakundeek zerrenda www.proyectofiare.com web orrian azaltzen da.

Berankortasunik ez

Gaur egun sarritan entzuten dugu berankortasun edo morositate hitza. Banka etikoan ez daukate oraingoz behintzat, arazo hori. "Morositatea, %0,3 da. Gainerakoan, beste bankuetan, morositatea, %5ekoa da. Itzultzeko garantia, fidagarriagoa da banku tradizionalare-

na baino", dio Calvillok. "60 proiekturi eman diegu mailegua eta arazoa, hirurekin daukagu. Bi nik uste dut bideratu direla, eta bakar horrek ez dut uste bide onik izango duenik", gaineratu du Garibik.

Dirua jarri eta dirua jaso nahi duenak, bide bera egin behar du, Juan Garibik zehaztu digunez: "Fiareren bulegoarekin harremanetan jarri behar du dirua jarri nahi duenak. Ordizian ere badago taldea. Bilbon egoitza finkoa daukagu. Dirua uzteko kontratu bat sinatu behar da. Produktu bat aukeratu behar da. Epea, diruaren mugikortasuna zehazten da kontratutuan. Dirua transferentzia bidez bidaltzen da. Guk jaso eta saiatzen gara ahalik eta gehien dirua maileguetan inbertitzen. Proiektuetan inbertitzen da dirua".

Igoera handia

Banka Etikoaren zabalkundetik handiena ahoz aho egiten ari dira eta pozik daude emailtzarekin, nahiz eta lanez lepo ibili. "Ia erakunde publiko guztiak, bazkideak edo bezeroak dira. Azkeneko urteetan, izugarrizko hazkundea izan dugu ekarpenetan. Ez dakigu zergatik; krisialdia dela eta, edo banketxeen aurkako kontzientzia hori sortu delako... baina ia-ia jasanezina da daukagun hazkundea. Ez daukagu hainbeste jende arreta emateko, paperak egiteko. 7 pertsona gara eta zentzu horretan ezin dugu. Eduki dugun hazkunde horrek suposatzen du inbertituta daukagun baino diru gehiago daukagula", zehaztu du.

Diruarekin dugun harremana guztiz aldatu behar da. Dena diru gehiago irabazteko egiten dugu.

Jaso, bildu...

Gordailuak

Fiarek edozein pertsona edo legezko entitaterekin gordailuak onartuko ditu, beti ere baldintza hauek betetzen direla:

- Gordailua uzten duenak adierazpen bat sinatu beharko du, Fiare proiektuaren oinarritzko printzipioekin bat datorrela esanez.
- Gordailua uzten duenak bere aurrezkiak nor finantzatzea nahiago duen esan ahal izango du. Ez da esku dirurik onartuko.

...eta banatu

Mailegu bat eskatzeko

Mailegu bat eskatzeko, finantzazio beharrak adierazi behar dira Fiareren bulegotik pasatuz, 944153496 telefonora deituz, info@proyectofiare.org helbidera mezu bat bidaliz edo www.proyectofiare.org webgunearen bitartez.

Finantziario eskabideak aztertzekeo prozesua: Behin behar den dokumentazio guztia aurkeztuta, proiektuaren finantza azterketa ekonomikoa eta ingurugiroaren araberako azterketa etiko soziala egingo dira, proiektua onartu ahal izateko.

Juan Garibi, Banku Etikoaren zuzendaria: “Badago dirua mugitzeko beste modu bat”

Orain modan dago, gizarte eredu berri behar dugula esatea. Zuek horretan ari zarete orduan?

Askok esaten dute, banketxeen egoera aldatu behar dela, zuzendarien soldatak jaitsi behar direla... guk ez dakit betiko ereduak edo ezberdinak erabili behar diren, baina badakigu dirua dela arazoa. Diruarekin dugun harremana guztiz aldatu behar da. Dena diru gehiago irabazteko egiten dugu eta zenbat eta diru gehiago, eta ahalik eta azkarren. Hori lortzeko jendea gizartetik kanpo baztertuta gelditzen baldin bada, berdin da. Edo herri oso bat gelditzen bada kanpoan, berdin da. Guk gehiago irabazteko aukera baldin badugu, berdin da. Herri osoak gelditzen dira baztertuta (Afrika adibidez), guk gure artean badaukagu laugarren mundua, lurraren egoera ere hor dago. Hortik ezin dugu jarraitu. Beharbada, egiturak beraiek erabili ahal dira, baina beti diru gehiago irabazteko asmoarekin ezin dugu jarraitu. Asmo espekulatibo hori sartuta daukagu barruan.

Zergatik hasi da Santander bankua Madoffen produktuak sartzen? Bezero bat joango zaio, %8 edo %9 eskatzera eta zuk ez badiozu ematen, beste banketxe batera joango da. Orduan, topatu behar duzu produktu bat %8a emateko. Borroka horretan dabilenak, modua aurkitu behar du gero eta gehiago irabazteko.

Eredu da hori txarto dagoena, eta ez badugu onartzen zer dagoen txarto eta zer lortzen dugun... Gauza berriak topatu behar dira. Eredu berriak bilatu behar direla diotenek, normalean, dagoena mantendu nahi dute, euren egoera mantendu egiten da eta. Goian daude eta goian jarraitu nahi dute. Azkenean, betikoek ordaintzen dute, behekoek.

Badago dirua mugitzeko beste modu bat, eta egon behar da. Bestela, ikusi mundua nola dagoen. Beste eredu bat, behe-tik hasten den eredu bat. Jendeari lekua ematen zaion eredu bat. Jendea eroso sentitzen da, jendeak lekua topatzen duelako parte hartzeko eta proiektuaren zati bat izateko. Giza mugimendua eta eredu finantzariarioa lotu behar dira. Gauza biak, aldi berean joan behar dira. Giza mugimendua finkatu, geroz eta gehiago gerturatuz; baina eredu finantzariarioa aurrera joan ahala, egongo da produktuak saltzeko aukera.



Banku etikora datorren jendea, elkartasun kontzientziagatik edo beste banku bat nahi duelako etortzen da?

Lehenengo momentuetan horiek bakarrik. Beste banku bat behar da, mundu ezberdin bat.... Esaten dutenak. Mugimendu ekologistetatik, mugimendu antimilitaristatik, bake mugimenduetatik, eliza mugimenduetatik... Baina azken bi urteotan, jendea, nazkatuta dator. Gertatzen ari denarengatik, konfiantza osoa galdu dute banketxeengan. 2009. urtea, 630 bezerorekin hasi genuen, eta 1.050ekin amaitu genuen. Egunero bezero berri bat daukagu eta dagoena, ez doa. Mundua aldatu behar denaren erronka eduki behar dugu.

Gu ez gatoz beste banketxei konpetentzia egitera, mugimendu pixka bat sortzera gatoz. Garrantzitsuagoa da gizartea astintzea, kuota bat edukitzea baino.

Proiektu ugari

Dirua biltzeaz gain, proiektu ugari finantzatu du dagoeneko Banku Etikoak. “%90, elkarte, fundazio edo kooperatibei ematen zaie. Helburua ez da zuzenean, norbanakoei, dirua ematea. Pertsona bati nola egingo diozu analisi etikoa? Kotsumorako krediturik ez dugu ematen. Langabetuei zuzenean dirua eman beharrean, eurekin lana egiten duten erakundeei ematen diegu. Honela biderkatu egiten da laguntza. Adibidez, ez diegu mailegurik ematen kalean lo egiten dutenei, horrek ez du ezer ere konpontzen. Baina Bilboko Caritasi eman diogu mailegu bat, jende horrek lo egiteko eraiki batean obra egiteko. Elkarleen bidez hobeto bideratzen da dirua. Andaluzian ia 2.000.000 euro banatu ditugu eta han ez dugu ezertxo ere jaso, bulegorik ere ez daukagu. Baina eskaerak jaso ditugu. Batez ere, etorkinei zuzendutako proiektuetan, bidezko merkataritza inguruan, ekonekazaritza... Euskal Herrian beharbada banatzen dugun baino diru gehiago biltzen dugu. Beharrak ezberdinak dira. Gure behar nagusia, inbertitzea da, diru asko ari gara eta

batzen. Interesak oso baju daude eta ez du zentzurik dirua batzeak, ez baduzu inbertitu behar. Guretzat premia da dirua proiektuetan jartzea”, zehaztu du Juan Garibik.

www.proyectofiare.com web orrian, finantzatutako zerrenda azaltzen da. “Gardentasuna da gure filosofia. Web orrian informazio guztia dago: zein proiektutan dagoen dirua, zenbat, zer egiten den... laz Gipuzkoan, adibidez, garrantzitsuena izan zen, Emausi, Irunen, egoitza berria sortzeko dirua uztea. Jendeak badaki bere dirua zein proiektutan dagoen”, gaineratu du.

**2009. urtea, 630 bezerorekin
hasi genuen, eta
1.050ekin amaitu genuen.**



Urrezko ezteiak ospatuz

Ataun San Gregorioko txirrindu probak 50 urte bete ditu

DVD-a eta Txomin Perurena, Xabier Usabiaga eta Julian Gorosperen mahai-ingurua izango da martxoaren 12an, Ataun San Gregorioko elkargunean

Urte asko dituen proba da San Gregorioko txirrindulari lasterketa. 50 urte beteko ditu aurten hain zuzen ere.

Afizionatuen proba izan da gehienez, eta Peio Agirre antolatzaileak esan digunez, irabazleen zerrenda ikusita, profesionalelara iritsi diren txirrindularien ispilu ere bada San Gregorioko proba.

50. urteurrena ospatzeko asmotan zaudete. DVD-a egin duzue, mahai-ingurua ere bada.

Bai eta gero afaria egingo dugu, bidegurutzeetan ibiltzen den jendea, babesleak, federazioko jendea, juezak...

Erraz esaten da, baina 50 urte, badira.

Aspaldikoa da proba hau. Garai batean hasi, gero hutsune bat ere egon zen, gure aurreko belaunaldian trantsizioa egon zen eta gero gu sartu ginen. 1984an sartu ginen. Jubenilen lasterketa egin genuen. Hurrengo urtetik hasi ginen, aurretik lana egin eta, afizionatuena egiten. Hortik aurrera, segidan egin dugu. Urtebete huts egin genuen, ibilbidearen gorabehera zela eta.

Horrelako lasterketa bat antolatzeke gero eta zailagoa al dago?

Arazoa da, ibilbidean gero eta biribilgune edo bidegurutze gehiago dagoela, eta horrek gero eta jende gehiago behar izatea dakar. Hala ere, San Martingo taldeak asko laguntzen digu. Karrerarik politena da, Lazkaora joan, eta Nafarroara. Idealena hori da eta herrirako politena ere bai. Baina askotan, itzulera operazioa dela eta, ez da posible izaten. Baina urte dezentetan Nafarroako itzulia egin dugu.

Zein buelta izaten da hori?

San Gregoriotik Lazkaora egiten da lehenengo, berotzeko. Bueltan berriz, Nafarroara. Nafarroan normalean egiten da, Arbizutik Unanu, Torrano, Arbizu. Handik, berriz, Atauna, Lazkaora, Lazkaoitik buelta, Kaxetaraino, Kaxetatik Urkillagara, berriz Lazkaora, Lazkaoitik berriz ere Kaxetara eta Urkillagara, eta Lazkaoitik helmugara. 118 kilometro inguru izaten dira. Lehen Urkillagatik hiru buelta egiten genituen, baina gogor samarra zela eta bi egiten ditugu orain.

Partehartzea ere ona izaten da normalean. Hemengo karrean lehenengo egiten dutenak, profesionalek pasatzen dira.

Txirrindulariek estimatzen dute beraz San Gregorioko lasterketa.

Hala ematen du. Antolakuntza aldetik ere nahiko txukun ermaten dugu eta Federaziotik eta Nafarroa Foralak-eta zoriondu egiten gaituzte antolakuntza onagatik.

Nik uste dut, txirrindulariek beraiek karrera segurua sentitzen badute, beraiek ere lasaiago etortzen direla.

Lehen garai batean hainbesteko autorik ere ez zen ibiltzen.

Errepideak ere sinpleagoak ziren. Bidegurutze gutxiago... beste

era batera zen. Gaur egun, karrera dagoela esanda ere, jendeak aurrera joan nahi izaten du. Jende dena presaka bizi da eta. Bidegurutzeren batean berriren bat baldin badago, autoak pasatu egiten dira. Orain denetik dago. Askotan Ertzainak behar dira kaso pixka bat egiteko.

Aurten irailaren 4an izango da karrera, San Gregorioko festekin batera. Hala ere, garai batean, beste data batean izaten zen ezta?

Bai, garai batean martxoaren 12an izaten zen beti karrera, orduan festak izaten ziren. Gero irailera pasatu ziren festak eta orain irailean egiten da. Martxoaren 12an jarri dugu ospakizunetarako, garai bateko data kontuan hartuta. Gainera ostirala tokatzen da eta ederki.

Martxotik irailera aldatuta, denboraldi amaieran izango da orain karrera.

Santa Fe inguruan bukatzen da denboraldia. Zaldibian egiten zen, baina utzi egin zuten, partehartze eskasa izaten zen eta. Jendea nekatuta iristen zen. Baina hemen ondo. Ondoren izaten da Cantabriako Itzulia eta ondo. Bukaeran da baina ondo ateratzen da.

Mahainguruan parte hartuko duten hirurak, Txomin Perurena, Xabier Usabiaga eta Julian Gorospe, hemen irabazitakoak dira.

Hala da. Perurenari San Gregorioko karrera aipatzen badiozu, 'Kaxeta biraje' esango dizu. Barrika bat jartzen omen zen Kaxetan eta barrikari buelta eman behar omen zitzaion. Pilaketa handiak iza-

ten omen ziren. Batzuk gelditu eta beste batzuk beheara bueltan. Debekatu egin zuten. Tranpak izaten omen ziren. Zubi azpian izkutatuta eta aurrekoekin elkartzen omen ziren.

Delgadok ere parte hartu izan du. Motoristak karreteratik atera arazi egiten zituen, ordurako jaitsieratan ona zen. Ez zuen irabazi baino. Gorosperekin-eta batera aritu zen.

Jesus Loroño ere irabazita dago: esaten dute, Estankon, txuleta jan eta ardo botila edan, eta karrerara atera eta irabazi egin zuela. Lehen beste modu bat zen. Lehen, indibidualagoa zen. Orain taldean ibiltzen dira.

Ataundarrik ibiltzen al zen bizikletan?

Gu hasi ginen garaian, Kaxetako Jose Javier Jauregi ibiltzen zen. Bi-hiru urtetan atera zen. Dioni Galparsoro ere bai. Jon Etxeberría ere bai. Aurretik bai: Lauztiturrietako Txato, harategiko Jose Ramon...

Garai batean martxoaren 12an izaten zen beti karrera, orduan festak izaten ziren. Gero irailera pasatu ziren festak eta orain irailean egiten da.

TOLARE

URBITARTE

SAGARDOTEGIA

943 18 01 19 ATAUN

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak

Filtroak, olioak,
engrasea

Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

DVD a eta mahai ingurua

San Gregorioko lasterketa bera irailaren 4an izango bada ere, jatorriko data aukeratu dute 50. urteurreneko ospakizunetarako. Martxoaren 12a hain zuzen ere. Lehenengo DVD-a eskainiko da eta gero mahai-ingurua. Elkargunean bertan. Istorio eta irudi ugari bildu ditu Jose Ramon Agirre 'Marron'-ek DVDan. Jarraian duzue ostiraleko egitaraua:

18:30ean: S.Gregorioko txirrindulari probaren DVD aurkezpena. Elkargunean.

19:30ean: Mahai-ingurua: Txomin Perurena, Julian Gorospe eta Xabier Usabiaga. Elkargunean.



Irabazleen zerrenda, urtez urte

1935:

Vicente Trueba.
2. Fermin Trueba.
3. Jose Trueba.

1949:

Antton Adarraga.

1950:

Murua.

1954:

Felix Malasetxeberria.

1955:

Pontziano Arbelaiz.

1956:

Jesus Loroño.

1959:

Eusebio Velez.

1960:

Nikolas Iparragirre.

1961:

Angel Askasibar.

1962:

Jose M^a Lasa.

1963:

Jesus Aranzabal.

1964:

Sebastian Elorza.

1966:


Juan M^a Azkue.

1967:

Fernando Iragorri.

1968:

Ignacio Aizpuru Etxezarreta.



1980:

Fede Etxabe.

1981:

Julian Gorospe.
2. Pedro Delgado.

1982:

Xabier Izuzkiza.

1983:

Jose Lasheras.

1984:

Jose Antonio Martiarena
(jubenilak).

1985:

Jose Alberdi (jubenilak).

1986:

Alberto Mota.

1987:

Fermin Trueba.

1988:

Javier Urrutia.

1989:

Carlos Galarreta.

1990:

Fermin Trueba.

1991:

Xabier Usabiaga.

1992:

Jose M^a Jimenez.

1993:

Julian Barcina.

1994:

Ibon Ajuria.

1995:

Jose Luis Herrera.

1996:

Aitor Asla.

1997:

Pedro Larizgoitia.

1998:

Jose Luis Fernandez.

1999:

Jon Azkune.

2000:

David Lopez.

2001:

Egoi Martinez.

2002:

Efrain Gutierrez.

2003:

Aitor Galdos.

2004:

Joseba Zumeta.

2005:

Mikel Elgezabal.

2006:

Unai Elorriaga.

2007:

Eugeni Zhadkevich.

2009:

Mikel Landa.

SAGARDOA TXOTXETIK GOIERRIN



BEGIRISTAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA

Haragia eta ogia jartzen ditugu
Egunero zabalik 8etatik 11etara

Igandeetan itxita

Eguerdietan ostegunetik
larunbatera bakarrik

☎ 943 65 28 37

IKAZTEGIETA

OTATZA

TOLARE SAGARDOTEGIA

Aste guztian zabalik, astelehena ezik
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere ire-
kita (asteaz zehar eguerditan enkarguz)

☎ 943 80 17 57

ZERAIN

aulia



TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66

LEGORRETA

Olagi

Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian
zabalik

Eguneroko menua

Karta

Sagardotegiko
meua



☎ 943 88 77 26

ALTZAGA

Orain kupela gehiago

AMEBI

Jada irekita!



Sagardotegia

☎ 943 16 25 23

Zubierreka, 9 **LAZKAO**

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA



Egunero 19:00etatik aurrera
Ostiraletan eta asteburuetan
eguerdietan zabalik

☎ 943 65 21 76

ABALTZISKETA

TXIMISTA

sagardotegia

Egunero zabalik, eguerdi eta gauean

Gudarien Etorbidea

☎ 943 88 11 28

ORDIZIA

URBITARTE

TOLARE

SAGARDOTEGIA

Egunero
zabalik



Zatoz lagunarteko
giroaz gozatzera!

☎ 943 18 01 19

ATAUN



ETXE-ZVRI

SAGARDOTEGIA - JATETXEA

☎ 943 88 20 49

OLABERRIA

Beasain

Martxoko ekintzak

Martxoak 12, ostirala:

22:30etan: Bertso saioa eta Neguko VIII. Bertso paper lehiaketako sari banaketa, Usurbe Antzokian.

Martxoak 13, larunbata:

17:00etan eta 19:00etan: Aurtzaka dantza taldeko haurren emanaldia, Usurbe Antzokian.

Martxoak 17, asteazkena:

17:30etan: 'Munduko amarik onena' ipuin kontaketa, Udal Bibliotekan.

Martxoak 19, ostirala:

17:00etan: Haur antzerkia: 'Ali, haren amona eta alfonbra hegalaria', Usurbe Antzokian.

Martxoak 20, larunbata:

16:00etan: Xake partida: Alfili A - Arrasate/San Andres B.

16:00etan: Haur Zinea: 'Txori urdin', Usurbe Antzokian.

Martxoak 25 osteguna:

12:45etan: Antzerki amateurren ikasleentzat: Txindoki-Alkartasuna Institutuko ikasleak. Usurbe Antzokian.

Eraskusketak

Martxoaren 14ra bitartean:

'Lur-zientziak Urdaibain' Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan.

Martxoaren 18tik 28ra:

XI. Mendiko Argazki lehiaketara aurkeztutako lanak, Usurbe Atzokiko Erakusketa aretoan.

Goieniz zine kluba

Martxoak 11:

21:00etan: 'Seraphine', Usurbe Antzokian.

Beasain

Bertso saioa

Martxoaren 12an, gaueko 2230etan, bertso saioa izango da Arrano Kultur Elkartek antolatuta. Jokin Sorozabal, Jexux Mari Irazu, Beñat Gaztelumendi, Arkaitz Estiballes, Endika Igartzabal gabiriarra eta Ainhoa Mujika beasaindarra arituko dira bertsotan.

Saio berean, Neguko bertso-paper lehiaketako sariak banatuko dira.

Segura

XV. Iparra Hegoa, martxoaren 20tik 28ra

Martxoak 22, astelehena:

19:30etan: Hitzaldia. Gaia: 'Herri eskubidea'. Sahara Herria, Kataluniako erreferendumak. Hizlaria, Iparraldeko Baterako Kontsultako Jakes Bortairu. Kultur Etxean.

Martxoak 23, asteartea:

19:30etan: Hitzaldia. Gaia: 'Lurraren beroketa'. Allande Errezarret eta Iñaki Antigüedad. Kultur Etxean.

Martxoak 24, asteazkena:

19:30etan: Hitzaldia. Gaia: 'AHT Lapurdin'. Hizlariak: Alain Iriart (Hiriburuko alkatea eta Kontseilari Orokorra), Jean Louis Ladutxe (Azkaingo alkatea) eta Pantxo Tellier (Cade, Ingurumena babesteko elkartearen elkartearen izenean). Kultur Etxean.

Martxoak 25, osteguna:

19:30etan: Bertso poteoa eta afaria: Amets Arzallus eta Jon Maia, eta Kuxkuxtu txaranga lagun. Afari txartelak Elorripen eta Xaian salgai.



ZEGAMA OKINDEGIA
Eskuz egindako ogi naturala
 Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
 ☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegui:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak, Centro 100. **Urretxus:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia	Artikulazio eta ahoko minak
Inplantologia	Radiologia digital zerbitzua
Periodontzia	Eskaner digitala

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

Ordizia

Gaztetxearen 24. urteurrena

Martxoak 13, larunbata:

Ordiziako Gaztetxearen 24. urteurrena ospatzeko ekitaldien baitan, Goierriko gazteen topagunea egingo dute martxoaren 13an Ordiziako Gaztetxean.

Martxoak 19, ostirala:

22:00etan: Mus txapelketa berezia egingo dute, Ordiziako Gaztetxean.

Martxoak 20, larunbata:**Goierriko gazte asanbladen topaketa:**

11:00etan: Tertulia (Gazte asanblada bakoitzaren egoera)

14:24ean: Bazkaria

17:00etan: Gazte jolasak

19:30ean: Manifestazioa 'Herri bat, Gaztetxe bat' lemapean.

22:24ean: Kontzertuak.

Ordizia

Txotxongiloak

Hitzaro Euskara Elkartek antolatuta, Ikusi Makusi programaren barruan. martxoaren 17an, arratsaldeko 5etan, 'Rosa kontaidazu ipuin bat' txotxongilo saioa izango da Barrenan.

Plan, Plin, Plan: goizeko aisia
ekintza, Aste Santuan

Ordiziako Hitzaro Euskara Elkartek Aste Santuan antolatuko duen Plan, Plin, Plan goizeko aisia ekintzan izen-emateko epea zabalik dago martxoaren 24ra arte.

Martxoaren 29, 30, 31 eta apirilak 6, 7, 8, 9 egunetan izango da. Plaza mugatuak direnez, izen-emate ordenaren arabera osatuko taldea. Matrikula, 35 euro ordaindu behar-ko da; Hitzaroko bazkideen seme-abalek, 30 euro. Hitzaro Euskara Elkartearen bulegoan (Egutera bidea, 5); 943162366 telefono zenbakian; edo hitzaro@gmail.com helbidean eman behar da izena.

Goierriko musika taldeen CD-a

Ordiziako Gazte Asanbladakoak, datorren urteko zilarrezko ezteiak prestatzen hasiak dira dagoeneko. Goierriko musika taldeekin eta bakarlariekin CD-a grabatzeko asmoa daukate eta bertan parte hartu nahi dutenei, lehenbailehen izena emateko eskatu dute ordiziarrek. Ordiziako Gaztetxean eta Beasaingo eta Lazkaoko entsaio lokaletan eman daiteke izena, edo baita 25urte@gmail.com posta elektronikokoaren bidez. Izena emateko epea, martxoan amaituko da.

Euskal dantza ikastaroa

Martxoaren 20an hasi eta maiatzaren 29ra arte, larunbatero, 9 saiotan, arratsaldeko 15:30etik 17:00etara, euskal dantzak ikasteko aukera izango da, Jakintza dantza taldeak eta Hitzaro euskara elkartek antolatuta. 35 euro kostako da matrikula. Izen ematea, Hitzaroko bulego teknikoan egin behar da (943 16 23 66).

Ordizia

Euskal Herriko 7 hiriburuak
oinez uztartuz

Iaz euskal Pirinioak zeharkatu ondoren, ekimenari jarraipena emateko asmotan, aurten beste proiektu bat du eskuartean Goierriko jubilatutako talde batek: 2010 eta 2011 urteetan, Euskal Herriko zazpi hiriburuak elkartuko dituzte, 36 etapetan. 875 kilometro guztira. Alegia, batzbesteko 25 km. eta 7 bat orduko iraupena dituen etapak eta ibilaldiak izango dira. Asteko etapa bat. Eguraldiaren arabera, asteartea, asteazkena edo osteguna aukeratuko litzateke autobusean egunean joan-etorriko irteera egiteko.

Inork ibilaldi honetan parte hartu nahiko balu, dei dezala telefono hauetara: 685 73 73 40 (Juan Ixidro); 646 686 778 (Txisto), 688 619 542 (Juanjo).

Ordizia

Ahoz Aho jaialdia

Ahozko tradizioko kontakizunak, literatur narrazioak, joko eszenikoa, poema musikatuak, deklamaturak bertsoak, hitz-jokoak, magia... nazioarteko ipuin eta kondairak haur eta helduentzat munduko aktore eta ipuin-kontalariek aurkeztuta Ordizian Ahoz Aho II. jaialdiak izango dira martxoan.

Martxoak 11, osteguna:

Ixabel Millet ipuin kontalaria; Urdaneta ikastetxean 10:00etan; Jakintza Ikastolan 11:15ean.

Martxoak 12, ostirala:

Kandela argipean Ipuin kontaketa; Urdaneta ikastetxean 10:00etan; Jakintza Ikastolan 11:15ean.

22:15ean: Ahozkoasunaren jaialdi handia, Herri Antzokian. Partaideak: Antonio Gonzalez Beltran (C.Valentzia), Mercedes Carrion (Peru), Jhon Ardila ((Kolonia), Ana Torrellas (Venezuela), Ana Cristina Herreros (Madril), Jerman Argueta (Mexiko), Ixabel Millet (Euskadi), Kandelen Argipean (Euskadi) eta Iñaki Carretero (Euskadi).

Martxoak 13, larunbata:

18:00etan: Barrena Kultur Etxean ipuin kontaketa; Kontalariak: Mercedes Carrion (Peru) eta Jerman Argueta (Mexiko).

Martxoak 14, igandea:

12:00etan: Barrena Kultur Etxean ipuin kontaketa; Kontalariak: Ana Torrellas (Venezuela) eta Mariano Martinez (C.Valenciana).

Martxoaren 15etik 18ra:

Barrena Kultur Etxean: gurasoentzat Ipuin ikastaroa: 'Zergatik, zer eta nola kontatu ipuinak haurrei'. Beatriz Egizabal (Kontu-Kantoi).

Zegama

Tobera Musika Eskolako ekintzak

Tobera Musika Eskolako ikasleen musika emanaldiak izango dira martxoan.

Martxoak 22, astelehena:

18:30ean: Piano eta akordeoi ikasleen entzunaldia, Aitxurin.

Martxoak 23, asteartea:

18:30ean: Txistuko ikasleen entzunaldia, Kultur etxean.

Martxoak 25, osteguna:

18:30ean: Gitarra eta trikitixa-panderoko ikasleen kontzertua, Kultur Etxean.

20:00etan: 'Akelarrean' dantza ikuskizun berritzailea, Tobera Musika Eskolako dantza taldeen eskutik, txistulariekin eta txalapartariekin. Kultur Etxean. Sarrera: 2 euro.

Idiazabal

Katalanak Idiazabalen

Idiazabalgo Autodeterminazio eskubidearen aldeko Herri Ekimenak kataluniarrekin harremana sendotu asmotan, asteburuko ekitaldi festa antolatu dute Idiazabalen. Gironako La Bisbal d'Empordako ordezkariak etorriko da Goierriara.

Martxoak 13, larunbata:

12:00etan: Ongi etorri harrera eta hitzaldia Guraso Elkartearen.

14:30ean: Bazkaria pilotalekuan.

17:00etan: Kalejira. Catalunyako dantza, musika, erraldoi eta su-ikuskizunak (dracks).

21:00etan: Herri afaria.

23:00etan: Dantzaldia Euskal&Catalunyako musika.

Martxoak 14, igandea:

10:00etatik 13:00etara: Euskal&Catalunyako bolo erakustaldia. Catalunyako gastronomia erakustaldia eta dastatzeko aukera...

14:00eta: Katalandarrei agurra.

Goierri

'Adimen emozionala' ikastaroa

Ikasiz zerbitzua, emozioak lantzen dituzten ikastaroekin hasiko da berriro. 'Adimen emozionala, garai zailei aurre egiteko erremintak' izango da hurrengo ikastaroaren izena. 20 urtetik gorako goierritarrei zuzendua dago. Martxoaren 15ean hasiko da, Goiekiko bulegoetan, eta 30 orduko iraupena izango du. Dohainik da. Irakaslea, Ibon de la Cruz psikologoa izango da.

Izena emateko 943 16 15 37 telefono zenbakira deitu behar da eta bozi.goieki@goierri.org posta elektronikora bidali.

Ormaiztegi

Sahararen aldeko krosa igandean

Otsailaren 28an Ormaiztegin jokatzekoa zen Salem Hach Embarek IV. memoria ez zen jokatu, haizeteak zirela eta kirol lehiaketak bertan behera geratu zirelako. Azkenean lasterketa igande honetan, martxoaren 14an jokatu da. Goizeko 11etan hasiko da lasterketa. 10 kilometroko ibilbidea dago prestatuta. Egunean bertan izena ematen dutenek, berriz, 10 euro ordaindu behar dute. Bi maila bereiztuko dira: 18 urtetik gorakoak eta 40 urtetik gorakoak.

18 urtetik beherakoek ere izango dute beraien lasterketa. 12:15etan hasita. Sinbolikoa izango da, kilometro bateko ibilbidearekin. Izena ematerakoan, borondatea eskatuko da. Partehartzaile bakoitzak kamiseta bana jasoko dute produktu ugari banatuko da saritan.

Lazkao

'Ali, haren amona eta alfonbra hegalaria' antzerkia

Martxoaren 12an, arratsaldeko 5,30etan, Areria Kultur gunean, Txalo antzerki taldearen eskutik, 'Ali, haren amona eta alfonbra hegalaria' antzezlanak ikusgai izango da. Kutxak sustatutako jarduerak dira. Dohainik izango da.

Lazkao

Bertso afaria Maizpiden

Martxoaren 16an, gaueko 21:00etan, Maizpide euskaltegiak antolatuta, bertso afaria egingo dute. Endika Igartzabal eta Ainhoa Mujika ariko dira bertsoetan.

Lazkao

Musika Eskolako ikasleen kontzertuak, egunero

Martxoak 22tik 26ra, arratsaldeko 6,30etatik aurrera, Kultur etxeko erakusketa gelan, Lazkao Txiki Musika eskolako ikasleen kontzertuak izango dira. Egunero musika tresna ezberdinen audizioak eskainiko dituzte.

Lazkao

XV. Gerriko Ikerlan-Beka

Goierriko Euskal Eskolak, Maizpide euskaltegiak eta Lazkao Udalak, XV. Gerriko Ikerlan-Bekaren oinarriak kaleratu dituzte. Oinarri guztiak www.maizpide.com eta www.lazkao.net web orrietan badago ere, hona hemen laburpena.

Ikerlanaren gaia

Goierriko dagokion edozein zientzia alorretakoa izan daiteke; antropologia, filologia, toponimia, literatura, osasuna, industria, nekazaritza, biologia, historia, ekonomia, medikuntza, ingeniari, zuzenbidea, pedagogia, psikologia, filosofia, informatika eta abar.

Eskakerak

2010eko apirilaren 30ean, eguerdiko 12:00etarako aurkeztu beharrekoak hauek dira: proiektu zehatza (15 bat orrialdekoa); eta kartazal itxian, kanpoalden, proiektuaren izenburua eta, barnean, eskatzailearen edo eskatzaileen datuak.

Beka: 7.000 euro

Gipuzkoa-Donostia Kutxak emandako 7.000 euroko beka jasoko du proiektu irabazleak.



ZUBARA
Eraikuntzak s.l.

Promozioak, Eraikuntzak,
Erreformak... 943 65 34 93 - 649 46 32 89
ABALTZISKETA



GERTU
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK

San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
gertu@gertuasesores.com



Iñauti Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO 602 Zbk. KOLEGIATUA

HAURREN ETA HELDUEN ODONTOLOGIA OROKORRA
RADIOGRAFIA PANORAMIKOA ETA ZEFALOMETRIKOA
ODONTOLOGIA ESTETIKOA (ZURIKETA)
KIRURGIA
ORTODONTZIA - PERIODONTZIA

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

Ikaskide akademía

Joan Iturralde, 5 - 943 160 120 eta Urbialde plaza 7- 943 027 792
www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA: Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, Moduloak
HIZKUNTZA ESKOLA: Ingelera eta Frantsesa
UNIBERTSITATE MAILA: Goierriko Unibertsitatea
MEKANOGRAFIA eta INFORMATIKA
LAGUNTZA PEDAGOGIKOA: Irakurmena, kalkulua, ikasketa teknikak

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak
Teorikoa 5 egunetan
CAP baimen profesionala

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

Segura



X. Lore azoka

10 urte bete ditu dagoeneko Segurako lore eta landare azokak. Udaberriarekin batera, aukera zabala izaten da lore eta landareetan. Iaz bezala gainera, aurten ere, goizez eta arratsaldez izango da azoka. Lore eta landareez gain, Goierriko artisautza eta produktuak erosteko aukera ere izango da Seguran, plazan eta pilotaleku zaharrean. Dena den, hamargarren urteurrena merezi bezala ospatzeko, beste bi ekitaldi ere antolatu dituzte segurarrak. Jarraian duzue egunean eguneko egitaraua:

Martxoak 19, ostirala:

20:00etan: Lore azokaren X. urteurrena. 10 urteotan azokak izan duen ibilbidea ikusgai izango da bideo emanaldi batean. Karpan.

Martxoak 20, larunbata:

10:15ean: Goiko Oria ibaia Europako Natura 2000 sarean. Oria ibaiaren balio ekologikoa ezagutzeko ibilaldi gidatua bi biologoen gidaritzapean. Plazatik abiatuta.

Martxoak 21, igandea:

Lore eta landaren udaberriko X. azoka:

10:00etan: Azokaren irekiera: Kriseilu txistulariak eta herriko trikitilariak; lore eta landare erakusketa eta salmenta; eskualdeko artisautza eta produktuak.

10:30etik 14:00etara: Ikuskizuna plaza inguruan: 'Txerto ezberdinak fruitarboletan', Josu Osaren eskutik.

16:30etik 19:00etara: Azokaren jarraipena.

Martxoaren 20an ibilaldi gidatua: Goiko Oria ibaia Europako Natura 2000 sarean

Oria ibaiaren goiko zatia Europa Batasunaren Garrantzizko Lekuen zerrendan dago, "Natura 2000" izeneko Sarean hain zuzen ere, eta horregatik, bereziki babestu beharreko gunea da. Toki bat Natura 2000ko guneen zerrendan sartzeko ingurumen-kontserbazioko egoera onean egon behar du, hau da, bitxi ekologiko bat izan behar du.

Esan beharra dago Oria ibaiak egoera ona duela Segura eta Zegamako zatian, kalitate handiko urekin eta bertan bizi den arrain-multzoko interesgarriarekin. Eremu honetan, besteak beste, amuarraina, ezkailua, lolina eta mazkarra aurki daitezke.

Toki honetako natur balio nagusienetako bat bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) populazio bideragarri baten presentzia da. Populazio hau gordetzea eta babestea oso garrantzitsua da, ibarraren gainerako zatia birkolonizatzen lagun dezakeelako hainbat saneamendu-planek uren kalitatea hobetzea lortzen dutenean. Halaber, Oriako ibai-korridoarek oso zeregin garrantzitsua du Euskal Autonomia Erkidegoko alde mediterraniar eta atlantiarrean kokatutako populazio hauen arteko loturan, hori funtsezko jarduerak izaki kontserbazio-estrategian.

2010 Biodibertsitatearen urtea deklaratu duenez Nazio Batuen Erakundeak, segurarrak eta nahi duen orok Oriaren zati honen balio ekologiko garrantzitsua ezagutzeko irteera antolatu da martxoaren 20an. Irteerako gidaritza Koro Irazustabarrena eta Maribel Zufiaur biologoek egingo dute.



kutxa



Goierrit Hartxo

Goierriko haurren aldizkaria 24. zenbakia 2010eko martxoa

Talogile berriak





Talogile berriak

Goiztiri AEK euskaltegiak antolatuta, Talo ikastaroa izan zen otsailaren 25ean, Beasaingo Arriaran auzoko Intxaurpe elkartearen. Ehun lagun baino gehiago elkartu ziren bertan. Adin guztietakoak guztiak. Haurrak ere asko ziren. Goierrihartxo laguna, hain gustuko dituen taloak nola egiten ikasi nahian, bertan izan zen Goierriko hainbat hurrekin batera.

Segurako talogileak izan ziren irakasleak. Orea nola egiten den, eskuarekin kolpetxoak emanez, taloa bera nola egiten den eta nola erretzen den erakutsi zieten ikastarora joan zirenei. Jakina, egin eta jan. Txorixoarekin, hirugiharrarekin, txokolatearekin edo gaztarekin. Goxo-goxoak zeuden benetan!



Lehenik eta behin, orea nola egiten zen erakutsi zuten Segurako talogileek: artoaren irina hartu, zulotxo bat egin eta gatza botatzen da. Ondoren, ia irakiten ari den ura botatzen joan poliki-poliki. Jarraian, eskuarekin nahastuz ore a egin.



Ore pelotatxoak hartu, eta talo-oholetan, kolpetxoak ematen zaizkio, plastilinarekin egiten dugun bezala. Ez eransteko, batetik, artirina bota behar da talo-oholan; eta bestetik, behin eta berriz, buelta eman behar zaio.



Taloak egiten ederki pasatu zuten goierritartxoek.

Gure arbasoen jakia

Arto-irinarekin, urarekin eta gatzarekin egindako opila da taloa. Mendeetan zehar taloa izan da gure baserrietako oinarritzko elikagaia. Gure amonek, gizaldiz gizaldi, etxeko sukaldeko sutondoan prestatu izan dute.

Garai batean taloa, eguneroko jakia bazen ere, gaur egun, noizbehinka jaten dugu eta normalean, erosi egiten dira, festetan, azoketan.... Askotan, ilara luzeak egoten dira gainera. Goierrin taloak egin eta saltzen dituzten taldeak badaude, Lazkaon, Seguran eta Ataunen.



**Arto-irinarekin, urarekin eta gatzarekin
egindako opila da taloa.**

**Mendeetan zehar taloa izan da gure
baserrietako oinarritzko elikagaia.**



*Txorixoarekin, hirugiharrekin,
txokolatearekin eta gatzarekin...
zeinen goxoa!*



7 aldeak

Aurkitu itzazu bi argazkien arteko 7 desberdintasunak.



Nikolas Txiki. **Historia ezezagun gehiago**

Autorea: Goscinnny

Ilustratzailea: Sempé

Itzultzailea: Koro Navarro eta Josu Mitxelena

Argitaletxea: Elkar


Orrialde kopurua: 366

Ezusteko atsegina eman zigun Goscinnny zenaren alabak etxeko kaxoi batean Nikolas Txikiren abentura argitaragabeak topatu zituela zabaldu zenean.

Liburu hau perfektua da arratsalde gris bat iraultzeko, talde irakurketa atseginean. Mardula da, baina egokia bidaiatzeko. Eta gehiago nahi izanez gero, zorionekoa zu, Nikolas Txikiren abenturak aspaldi hasi zirelako argitaratzen eta hau euskaraz dugun bosgarren alea delako. Azkena?

ZER IRAKURRI?

*Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkarteko
Irakurketa Mintegia*



Klara zirimola

Autorea: Braulio Llamero

Ilustratzailea: Eider Eibar

Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak




Argitaletxea: Erein

Orrialde kopurua: 64

Liburu hau hurrekin egunerokoaz hausnartzeko egin dago. Idazkera irakurterazean, ozen irakurtzeko eran, ahizpen arteko harremana aztertzen da, zaharrenaren jelsia azaleratzeko asmoz. Ez bilatu liburu honetan irtenbiderik, hemen egoerak deskribatzen dira.

Eider Eibarrek pertsonaiak era maitagarrian gorpuztu ditu. Irudien bidez testuan ez dagoen informazioa ematen zaigunez, irakurketa eta kontakizuna bera nabarmen aberasten dira.

Kopiatu irudia



A



B



C



D

Zuloak bete

Zein letra dagokio marrazkiko zuloetako hutsune bakoitzari?

goierri^H artxoren lagunak:

 **IRIZAR**

 **AMPO**





Mutiloako Atibertxiki baserriko ezkontza

1932. urte inguruko argazki honetan Atibertxiki baserrian ospatu zen ezkontzako partaideak ageri dira.

Goiko ilaran, eskuinetik hasi eta hirugarrena: Eustakia Legorburu Mendiola (emaztearen ama).

Erdiko ilaran ezkerretik eskuinera: ezezaguan, ezezaguna, Ildefonso Azurmendi Auzmendi (emaztearen aita), Romana Azurmendi (emaztea, izatez Atibertxiki baserrikoa), Ramon Zereijo Irastorza (senarra), Higinia Azurmendi (emaztearen ahizpa), Euxebia Apaolaza (Atiberhaundi) eta Mikaela Iparragirre (Ugalde).

Beheko ilaran, ezkerretik hasita bigarrena: Roxario Azurmendi (emaztearen ahizpa) eta argazkian eskuinean ageri dena: Kasimirra Azurmendi (emaztearen ahizpa).

PSIKOLOGI KLINIKOA

Jose Ramon Pato Prieto
 Psikologian lizentziatua
 Elkargokide zenbakia: E-2644
 RPS: 420/01
AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

**Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak**


ARANDIA
GARAJEA
 Autoen konponketa
 N-1, z/g Iurre Auzoa OLABERRIA ☎ 943 88 09 47

**"Eguneroko ogia, ogi bereziak
eta pastel ezin hobekak"**

**GOKINDEGIA
GARIPONA**

K. Nagusia 35 BEASAIN
 ☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO
 ☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA
 ☎ 943 16 00 44


Urraki
 Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
 Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
 urraki@over.es www.over.es



BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com






lore eta landareen udaberriko X. azoka



2010eko martxoaren 21ean
goiz eta arratsaldean

SEGURAN

MARTXOAREN 19AN, OSTIRALEAN:

Arratsaldeko 8tan karpapean
Lore azokaren X. urteurrena
10 urteotan azokak izan duen
ibilbidea ikusgai izango da bideo
emanaldi batean.

MARTXOAREN 20AN, LARUNBATA:

Goiko Oria ibaia Europako
"Natura 2000" sarea.
10.15tan herriko plazan elkartu eta
Oria ibaiaren balio ekologikoa
ezagutzeko ibilaldi gidatua bi
biologoen gidaritzapean.

EGITARAUA

MARTXOAREN 21EAN, IGANDEAN:

Goizeko 10etan, AZOKAREN IREKIERA
-Kriseilu txistulariak eta herriko
trikitilariak
-Lore eta landare erakusketa eta
salmenta
-Eskualdeko artisautza eta
produktuak

10:30etatik 14:00etara,
IKUSKIZUNA plaza inguruan
"Txerto ezberdinak
fruitarboletan"
Josu Osaren eskutik

Arratsaldeko 4:30etatik 7:00etara
Azokaren jarraipena



ZURE LORATEGIA ETA BARATZA ZAINTEKO BEHAR DUZUN GUZTIA, ESPAZIO BAKAR BATEAN



| Erregadioa




| Lorontziak



| Haziak



| Ongarriak



| Lurrak eta harriak



| Lan tresnak

LORATEGI LANAK ERE EGITEN DITUGU. INFORMA ZAITEZ!



Altune poligonoa, 4-G. OLABERRIA
943 88 30 53